

AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO OHIKO PROZEDUREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, UNIBERTSITATE GESTIOAREN ESKALA - ENPRESA ZIENTZIAK (OHIKO PROZESUA) DEIALDI ESPEZIFIKOREN BEHIN-BEHINEKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.

II. eranskineko 8.7 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du:

*8.7. Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa.*

*Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa hau izango da:*

- *Lehiaketa-oposizioaren bidezko deialdi espezifikoetan, oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura.*
- *()*

Oinarri hori betez, joan den urriaren 1ean hautaketa-prozesu honen behin-behineko azken kalifikazioa argitaratu zen, eta parte-hartzaileak beheranzko noranzkoan ordenatu ziren lortutako puntuoen guztizkoaren arabera, eta, berdinketa kasuetan, 8.7 oinarri orokorra aplikatuz.

Puntuazioak lortzeko formulen konfigurazio informatikoan egindako akats batengatik, 6.2. oinarri espezifikoan xedatutakoa aplikatu zen euskararen ezagutzaren balorazioan, deialdi espezifikoa honetan 6.1. oinarri espezifikoa (6.1. *Eskaintzen diren plaza guztiek gaindituta daukatenez derrigortasun data deialdia egiten den egunean, «gai» kalifikazioa izango dute kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiak*) aplikatzea bidezkoa izan zenean, deialdi espezifikoa honetan eskainitako plaza guztiek oinarri horretan aurreikusitako baldintza betetzen dutela egiaztatzen baita.

Ondorioz, hautaketa-prozesuko epaimahaia bildu ondoren, eta adierazitakoarekin bat etorritz, honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA**- 2024ko urriaren 1ean argitaratutako behin-behineko azken kalifikazioa indarririk gabe uztea.

**BIGARRENA**- Zerrenda berri bat onartzea, UNIBERTSITATE GESTIOAREN ESKALA - ENPRESA ZIENTZIAK (OHIKO PROZESUA) berriazko deialdian gainditu dutenen behin-behineko azken kalifikazio berriarekin, lortutako puntuazio orokorraren handienetik txikienera, oposizio- eta lehiaketa-faseko nota partzialekin eta egiaztatutako euskara-mailaren atalean "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioarekin. Berdinketa kasuak 8.7 oinarri orokorrean ezarritako berdinketa hausteko irizpideak aplikatuta ebatzi dira.



HIRUGARRENA.– Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea ([https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp](https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp)); gaitutuen behin-behineko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

. – Zazpi (7) egun balioduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten, hala badagokio, bidezko erreklamazioa egin dezaten UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus/es>) eta 5.3 oinarri orokorrean azaldutako lekuetan.

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan,

Epaimahaiko idazkaria

Maria Arias López de Lacalle